

Jorge Segurado, Urnietako alkatea

Astearte goizean alkateari dagokion aginte-makila hartu zuen, eta arratsaldean Aiurri astekariari lehen elkarrizketa eskaini zion / 2-3


AIURRI

Osasun publikoa aldarrikatzeko manifestazioa

Tolosako Asuncion Klinika erreferentziazko ospitala da andoaindarrentzat. Hango egoerarekin larrituta, manifestazioa deitu dute larunbat honetarako / 6



**Ekoizleen produktuak
Urnietan bertan
erosteko aukera
ahalbidetu du
Udalak** / 5



**Luxio Aranburu
Etxeberria mendizalea
eta musikaria hil da.
Aski ezaguna zen
Andoainen** / 10



**Antonio Garmendia
Urnietako azken
saskigilea gogoan,
hitzaldia eskainiko du
Luis Mari Zalduak** / 14



IKUSBERA

**Zenbaki berria prest,
eta laster Euskaraldiari
buruzko Ikusbera berria!**

AIURRIKO HARPIDEDUN IZATEAREN ABANTAILAK





Jorge Segurado Iriondo alkatea, aginte-makila eskuan, Marian eta Amador gurasoekin batera. AIURRI

“Taldea berdina da, helburuak ere bai; pertsona aldatzen da”

JORGE SEGURADO IRIONDO URNIETAKO ALKATEA

Urnietako aginte-makila hartu zuen astearte goizean, Mikel Pagola ordezkatzuz; pixkanaka Urnieta hobeago bat egingo balu, konforme omen litzateke

Andoni Urbistondo URNIETA

Legegintzaldirako alkate izango da, printzipioz: “gero-gerokoak”; institutu berria eta Babiloniko eta Ermotegiko garapena lehen-bailehen martxan jartzea dira bere erronkak.

Pasa den asteartea egun betea izan zen Jorge Segurado Urnietako alkate berriarentzat (50 urte beteko ditu igandean). Goizean udalbatzan bere hautagaitza berretsi zuen, eta bazkalostean lehen elkarriketa eman Aiurriri. Euskaraz egin du ia

elkarriketa osoa, esaldi pare batetan izan ezik: “Euskaldun berria naiz”, dio, damutu antzean. Herritar guztiek bere atea irekita izango dutela nabarmendu du sarri.

Batzuk ezustean hartu ditu zu alkate izendatzeak legegintzaldi betean. Zu?

Ni ere bai, Mikel Pagolaren aldaketa hurrengo legegintzaldirako zegoelako aurreikusia, ez oraingo. Dena aurreratu egin da. Joseba Muxika Gipuzkoako Foru Aldundiko Hiritarren Par-

taidetzarako zuzendaria hil zen, abuztuan. Eta hutsune hori betetzeko Mikel Pagola hautatu dute. Ni ere ezustean hartu nau aldaketak.

Eta, nola bizi izan duzu aldaketa? Beno, azkarra izan da. Mikelek Aldunditik proposamena jaso eta berehala nirekin hitz egin zuen, nire iritzia jakiteko. Taldean hitz egin genuen, gero alderdiko baimena eta oniritzia jaso, eta Udalean ere bete beharreko tramite guztiak egin ditugu. Oso azkar joan da dena.

Eta nola pasa dituzu bi aste hauek?

Gustura hartzen dut ardura, baina erantzukizun handia da. Herri guztia zure bizkar dago. Gogotsu nago, indartsu, taldearen babes eta konfiantza osoarekin. Talde polita daukagu erronkak gainditu edo aurre egiteko, eta udaletxeko teknikariek ere oso jarrera eta borondate ona erakutsi dute denon artean Urnieta hobe bat lortzeko. Horretan gaude.

6.300 biztanle, 9-10 milioi euroko aurrekontua urtero... Ardura sentitzea normalena da.

Bai, goizean udalbatza baino lehen pixka bat urduri nengoen. Erronka berri guztien atarian bezala, ez? Hala ez balitz arraroa

litzateke. Mikel Pagola ondoan izango dut, beharrezko aholkuak emateko. Gauzak ondo egiteko gogoz nabil.

Bost urte daramatzazu udalean zinegotzi moduan. Zer da denbora epe horretan ondoen ikasi duzuna?

Administrazioaren epeak. Nik ohitura neukan administrazio zibileko epeekin funtzionatzen, enpresa pribatuko arauekin moldatzen, baina administrazioan askoz luzeagoa, geldoagoa da dena. Gaurtik biharko egin nahi dituzu gauzak, baina ezinezkoa da. Lege bat, arau bat... Burokrazia pila dago. Udalean eta beste erakundeetan. Moldatzea kosta egin zait, eta sarri haserretu egiten naiz.

EAJ-PNV bozkatu zuen herritar batek esan zidan, pasa den astean: “Ziri ederra sartu digute honekin; nik Mikel Pagolari eman nion nire bozka”. Zer diozu?

Jende askok pertsonari ematen dio botoa udal hauteskundeetan baina pertsona horrek talde batekin lan egiten du. Guk talde moduan egiten dugu lana, eta Mikelek taldeko kide izaten jarraituko du, alkate bezala ez badago ere.

Definitu zaitez urnietarren aurrean. Nolakoa da Jorge Segurado?

Herritar normala. Jendearekin harreman ona edukitzea gustatzen zait, eta nire bulegoko ateak irekita egongo dira denentzat. Nire izaera nire egunerokora aplikatzen saiatuko naiz. Gauzak ondo egin zalea naiz, kirol zalea...

Zerk ezberdintzen ditu Jorge Segurado eta Mikel Pagola, zerbaitetan ezberdinak badira?

Erronka berdinak ditugu. Gure helburuak eta erronkak berberak dira, baina pertsona ezberdinak gara. Lan egiteko moduak ezberdinak izango dira, noski. Mikel, bere eskarmentuagatik, oso zuzena da. Karisma handiko pertsona da, urte asko egin ditu jendearen aurrean lanean. Alde horretatik asko dut ikasteko Mikelengandik, baina pentsatzen dut, nik ere esperientzia hartu ahala, aldaketa nabarmenak izango ditudala nire jardunean. Nire aldetik ahalegina egingo dut ahalik eta txukunen aritzeko.

Zer izango zara, legegintzaldi bateko hautagaia, edo denbora gehiagorako?

Momentuz legegintzaldi baterako. Batez ere gehiago jarraitzea ez dagoelako nire eskuetan



Urnietako EAJ-PNV taldea, alkate berria izendatu eta gero. AIURRI

bakarrrik. Erabakia nire eta alderdiaren artean hartuko dugu, unea iristen denean. Momentuz, bi urte eta erdi pasatxo hauek, eta gero-gerokoak.

Zer da Udaletxeko jardunaz gehien eta gutxien atsegin duzuna?

Jendearekin edukitzen duzun gertuko tratua, harreman pertsonala dut gustuko, baina jendea bere arazoekin etortzen zaizu, eta askotan ezin duzu gauza askorik egin, legeak mugak jartzen dituelako. Drama pertsonal asko daude, eta hori onartzea ez da erraza. Eta one-na da proiektuak landu, osatu eta gauzatzea.

Zein erronka izango dituzu legegintzaldia bukatu bitarte?

Eliza atzeko igogailua martxan da, kiroldegia ere badirudi abiada puntu bat hartu duela, erronka handiena institutua eraikitzea da. Tramite guztiak bukatu eta herrian 0-16 ziklo osoa gauzatu ahal izatea.

Eta nola doaz tramite horiek?

Tramiteak betetzen ari gara Babiloniko ordenazio planean. Trabatuta gaude plan partzialaren hasierako onarpenarekin, uren txostena falta zaigulako. Zain gaude, eta txosten hori iristen denean tramiteak azkartzea espero dugu.

Bitartean Jaurilaritzako Hezkuntza Sailarekin harreman emankorra dugu, dena prest dago martxan jartzeko, tramite hori bukatzean. Ermotegiko lanetan ere erreka horren txostenarekin atzerapena izaten ari da.

Eperik ematera arriskatu zina-teke?

Espero dut legegintzaldia bukatzerako lanak hasita egotea. Gure lana lurra lortzea da, eta Hezkuntza sailari ematea, egungo ikastola dagoen eraikinaren atzean, Lasarte-Oria aldera. Behin lurra Hezkuntza Sailari eman ondoren, bera izango da arduraduna.

Legegintzaldia bukatzerako proiektua behintzat onartua egotea espero dut, edota lanak abiatuta. Lurra eman ostean, gure zeregina proiektu hau lehen bailehen garatzea izango da.

Igogailua ere bukatu zen, halako batean, baina ongi etorria izan da.

Bai. Baziren bertan dorre elektriko batzuk, eta Iberdrolak dorreak kentzeko aukera eman zigun. Horrek asko atzeratu zituen lanak, pandemiak ere erdiz-erdi hautsi zuen obra...

Erabiltzaile asko du.

Bai, Etxeberri auzoan jende asko bizi da, eta Osakidetzako anbulatorio berria ere han dago. Eskola ume asko ere bertatik igotzen dira ikastolatik plazara edo Urraka eta Azkorte aldera. Esango nuke bi igogailuek, Etenetakoak eta Santa Leokadia kalekoak herritar askoren mugikortasun ohiturak aldatu dituztela. Bazirudien Urrakako igogailua ez zuela inork erabili behar, baina jende dezentek erabiltzen du Arantzubiko al-dapa edo Azkorte ikastetxera daramaten eskailerak saihesteko.

Nola dago Udaletxeko altxortegia?

Justu samar.

Zer da justu samar?

Urtea bukatzeko eta ohiko gastuak betetzeko kreditu bat eskatu beharko dugu. Soberakinean diru dezentegoen, baina Etenetako igogailuak eta kiroldegia ia dena jan dute. Ez dugu dena erabili, baina konprometitu daukagu diru hori. Gainera urte erdian pandemia etorri da, aurrekontuak osatuta genituela.

Zenbatean murriztu da Aldunditik jasotzen den dirua?

%20 inguru.

Nola dago Urnieta COVID-19 pandemiari dagokionez?

Gaur nahiko ondo esango nuke (astearte arratsekoa da elkarriketa), baina bihar ez dakit. Badakizu egoera asko alda daitekeela, egun batetik bestera. Orain bi aste susto bat eduki genuen, arduratzeko moduko kutsatze datuekin... Datu horiek jakinarazterakoan komunikazioa hobea izan behar zen, baina behintzat jendea esnarazi genuen. Aste honetan lasaia gabilta. Pasa den ostiralean lau kutsatu, hurrengo hiru egunetan kutsatu bakarria eguneko. Momentuz kontrolatuta dago, baina zuhurtziaz jokatu behar dugu beti.

Komertzioetako langileekin sestra handi samarra izan zen, eztabaida potoloak uda aurretik. Zertan da egoera hura?

Guk akordio batera iritsi nahi genuen. Komertzioek oso man-

tso gindoazela leporatu ziguten, baina pandemiarekin ez gene-kien zenbat diru izango genuen. Proposamen bat helarazi genien, baina borroka eta ezadostasuna egon da, ezin dugu ukatu. Bi aldeek ikuspuntu ezberdina daukagu oraindik ere, baina nire ustez akordio batera heldu behar dugu derrigor, alde guztientzat ona izango delako. Merkatarientzat eta herriarentzat.

Bono sistema bat ere jarri zenuten martxan. Eraginkorra izan al da?

30 eurokoak dira, non herritar-rak 20 ordaintzen dituen, eta Udalak 10 jarri. Bi bono sorta denera, 60 euro. Irailaren 21ean jarri genituen salmentan. Ez du espero genuen salmentarik izan. Bono kopurua handitu dugu.

Zergatik ez du, bada, salmenta onik izan?

Ba ez dakit, ez nago ziur. Udaletik gure eskura dauden baliabideak erabili ditugulako bonoen berri emateko herritarrei: web-gunea, Berritu aldizkaria, Aiu-ri, El Diario Vasco eta Noticias de Gipuzkoa argitalpenak, informazioa etxe guztietara helarazi da... Esango nuke jendeak badakiela bonoak daudela, baina akaso herritarrek beste eros-keta ohitura batzuk dituzte, herrian bertan egin beharrean. Aztertu egin beharko ditugu bono salmenta handitzeko neurriak.

Ermotegiko etxeak ez al dira garestiegiak? 70 metro koadroko etxe berri bat, bi logelekin, 300.000 eurotik gora... Ez al da gehiegizkoa Urnietarentzat?

Ba bai, arrazoi duzu, diru asko da.

Eta Udalak ezin al du ezer egin salneurri garesti horiek apaltzeko? Herritarrek azkenean Lasarte-Oria edo Hernanira joaten ari dira etxebizitza merkeago baten bila...

Aukera bakarra beste etxe promozio bat abiatzea da, eta promozio horretan babes publikoko eta salneurri tasatuko etxe gehiago erosteko aukera ematea herritarrei. Prezio librearen dute etxeetan ezin dugu ezer egin. Promotoreak erabakitzen du prezioa, eta oker ez banago Ermotegiko etxe guztiak saldu egin dira.

Ermotegin babes publikoko eta tasatutako etxeak kopuruz gutxiago dira, Babilonin askoz gehiago izango dira. Etxebizitza guztien %75a.

EAJko Gobernuak ez du gatazka handirik eduki azken urteetan. Gazte talde batek ateratako pankarten kontuak piztu du sute txiki bat.

Adierazpen askatasuna errespetatzen dudala, dugula esango nuke, baina errespetuz jokatzeko komenigarria da. Gazte horiek, noski, antzera jarraituko dutela pentsatzen dut, baina Gobernu taldeko pertsona baten izenak jartzea eta horrela seinalatzea, onartezina da guretzat. Horrek mugak gainditzen dituela esango nuke. Nire ustez ez dago ondo.

Gehiengo oso bidezko kudeaketa bakarrik ezagutu duzu. Horrela hobe?

Erosoagoa da, noski, gehiengo osoarekin gobernatzea, baina astearte goizeko onarpen plenoan esan nuen, EHBildu eta PSE-EE taldeekin harreman hobea edukitzea saiaturko naizela legegintzaldi honetan. Nire atea irekita dago denentzat. Lortuko dudana ez dakit, baina asmoa, behintzat, garbia da. Denok ditugu gure pentsamoldeak, ideiak, baina denon helburua berbera da: Urnieta hobe bat edukitzea.

Oposizioko alderdiekin harreman hobea edukitzea espero duzula diozu. Txarra al da ba?

Beno, udalbatzak ikusten badi-tuzu, agerikoa da oposizioko bi alderdiek ez daudela ados gure jardunarekin. Informazio guztia ematen saiatuko naiz, elkarriketa sustatzen, errazten.

2023an, legegintzaldia bukatzen denean zuek zer esatea gustatuko litzaizuke?

Mikel Pagolak oso lan ona egin du, neurri ona eman du. Itzal handia utzi du Urnietan, bederatzi urte luze egin ditu alkate jardueran. Uste dut bere eta nire jardunaren artean konparaketak egiteko joera izango dutela askok. Konparaketak gorrotagarriak omen dira, hala esaten dute. Esan dut lehen ere, pertsona ezberdinak gara, ezberdin jokatuko dugu. Mikelen hutsunea sobera nabaritu ez dadin saiatuko naiz, eta helburu argi batekin: pixkanaka Urnieta hobea-go bat ehuntzen saiatu. Horregatik sartu nintzen EAJ-PNVko udal taldean, eta horregatik bilakatu naiz orain alkate.

Legegintzaldia bukatzen denean Urnieta oraingo Urnieta baino hobetuegia balitz, ni neu konforme nengoke.



Astearte goizean ez ohiko Udal batzaraldia egin zuten. AIURRI

Xabier Lasa URNIETA

EH Bilduk eta PSE-EEk ezezko botoa eman zioten, eta kezka agertu zuten lan ildo berberarekin jarraituko duela adierazi duelako; oposizio alderdientzat estilo aldaketa behar du Urnietako Udalak.

Asteartera bitarte alkate izandako Mikel Pagolak hartu zuen hitza, lehenik. Alkate karguari uko egiteko arrazoiak agertu zituen: “Zoritzar batek eragin du aurre ikusita ez zegoen aldaketa: Gipuzkoako Herritarren Partaidetzarako zuzendari zen Joseba Mujika bihotzekoak jota hil egin zen, eta huts hori beteitzeko erronka proposatu zidan alderdiak. Batera-ezintasunak ekarri du alkate kargua utzi beharra. Urnietarekiko konpromisoa berretsi nahi dut nolanahi ere, alkatetza kargua utzi arren zinegotzi bezala jarraitzen baitut”.

Esker onen atalean, familia, udal lan taldea, oposizio zinegotziak eta EAJ-PNV alderdia aipatu zituen. Eta amaitzeko, erabateko konfiantza agertu zuen Jorge Seguradorekin: “Urnietak eta urnietarrentzat pertsona egokia dela ziur nago. Oso ondo ezagutzen dut, eta jakin badakit hemendik aurrera hartuko duen erantzukizun berria ardura, konpromisoa eta ilusio osoaz jasotzen duela. Udalaren funtzionamendua ezagutzeko denbora eduki du, esperientzia metatu du eta etorkizunean Urnietak dauzkan erronkei aurrera egi-

Oposizioa kritiko agertu zen

Jorge Seguradok Mikel Pagolaren eskutik jaso zuen aginte-makila, astearte goizean egin zen ez ohiko udalbatzan. Indarrez eta ilusioz ekingo diola aitortu zuen. Aurrean izango ditu oposizio alderdiak, kritiko agertu baitira lehen unetik

teko prestatuta eta motibatuta dago. Talde sendoa mantentzen du alboan, horretarako”.

Legeak hala agintzen duelako, bozketa egin zen astelehen goizean, eta Jorge Seguradok bere alderdikideen botoa jaso zuen. Oposizio alderdiek, berriz, kontra egin zuten. Ondoren, Seguradok Pagolaren eskutik aginte-makila hartu zuen, ohiturak hala agintzen duen bezala.

Oposizioaren kontrako botoa

Oposizio alderdiek antzeko argudioak azaldu zituzten ezezko arrazoitzeko orduan. Beren

"OKER DABIL UDAL FUNTZIONAMENDUA. INFORMAZIO FALTA NAGUSI DA"

HERME GONZALEZ, PSE-EE

ustez, legegintzaldia hasi zenetik gobernu taldearen aldetik errespetu falta oposizioarekiko nagusi izan da; aldi berean, kezkarria egiten zaie Seguradok lan-ildo berberarekin jarraitze-ko asmoa duela adierazi izana.

Sozialisten udal taldeko bozeramaile den Herme Gonzalez kexati agertu zen: “Oker dabil udal funtzionamendua, legegintzaldia hasi zenetik. Nagusi da informazio falta. Politikoki zuzenena guri botoa eskatzea izango litzateke, baina horretarako gurekin ez dute bildu nahi izan. Iruditzen zaigu formak okerrak direla udaletxe honetan, eta alkatetzaren aldaketarekin gertatu dena da horren isla. Oposizioari horren berri eman baino lehenago jakinarazi dute komunikabideek eta zabaldu dute ohar orria etxez etxe. Errespetu eta kortesia falta daude atzean,

ez zinegotzietatik, horiek ordezkatzen dituzten herritarrei baizik. Bestalde, alkate berriak prentsan egin dituen adierazpenek ere arreta piztu digute. Ulertzekoa eta zilegizkoa da esatea legegintzaldiko plangintzari eutsiko diola. Baina harritzen eta kezkatzen gaitu lan ildo berberarekin jarraituko duela adierazi baitu. Dena den, formetan behintzat aldaketa etorriko den itxaropena ez dugu galtzen, eta alkatea gertu izango gaitu proposamen berriei badatorrigu”.

Gonzalezek antzera, EH Bildu udal taldeko bozeramaile

"DINAMIKA BERRIAK SORTZEKO APROPOSADA LIDERGOTZA ALDAKETA"

AINARA DE MIGUEL, EH BILDU

Ainara San Miguel ere kritiko agertu zen legegintzaldia berriaren EAJ-ko udal taldeak erakutsi duen jarraitzearekin, eta Seguradok egun hauetan egin dituen adierazpenekin. “Legegintzaldia hasieran, oposizio eraikitzailea egiteko konpromisoarekin, aurrekontu batzuk onartu, negoziazioari ekin eta horren barruan akordioak egin genituen; besteak beste, berdintasun teknikariarekiko konpromisoa zegoen.

Guk nahiago dugu zintzoak izan, hitza betetzeko orduan. Baina ikasi dugu udaletxe honetan oposizioa egitea errespetuz, zigorra dakarrela, desinformazioarekin eta tratatu bortitzarekin. Gaur bertan, batzorde batean, geure burua kanpo utzi nahi izan dugu, politikan eztabaida ezinbestekoa dela ulertzen ezazuen. Zuek, 1.500 bozka ordezkatzen dituzue, baina uste dugu oposizioak biltzen dituen 1.300 inguru bozka horiek ere lehen mailako herritarrek direla, eta iritziz guztiek behar dutela lekua. Lidergoaren aldaketa bat gertatzen denean, iruditzen zaigu une egokia izaten dela lan dinamika berriak sortzeko, nahiz eta proiektuak berberak izan. Jorge, kontatu dezakezu gurekin herriarentzat mesederako izango den edozein eztabaidarako, baina horretarako alde aurretik informazioa eduki nahi genuke”.

Seguradok, indarrez eta ilusioz

Jorge Seguradoren hitzekin amaitu zen ekitaldia. Alkate berriak lasaitasun eta konfiantza mezua zabaldu nahi izan zuen, “berdin jarraituko dugu lanean gure legegintzaldia hasieran jarritako proiektuak aurrera ateratzen nahian. Indarrez eta ilusioz hartzen dut alkatetza kargua”.

Udal lan taldeari, eta bereziki Mikel Pagolari, eskerrak eman ostean, konfiantza osoa adierazi zuen etorkizunari begira: “Zuen babesa eta indarra sentitzen dut, eta ziur nago udal proiektu garrantzitsuei aurre egitea lortuko dugula. Udalean langile eta teknikari talde bikain batez inguratuta gaude, eta erabat lagunduko digute Urnietan aurkeztuko diren proiektuekin”.

Oposizio taldeei eskaini zizkien azken hitzak: “Atea beti irekita edukiko duzue; zuen proposamenak entzuteko eta eztabadaitzeko prest gaude”.

Bertako produktuak erosteko aukera

Urnietako Udalak herriko bertako ekoizleen produktuak erosteko aukera iragarri du. Eskaera telematikoa izango da, eta produktuak astean behin herriko plazan jaso ahal izango dira. Whatsapp talde batean izena eman behar da, parte hartu ahal izateko



Ekimena abiaraziko duten ekoizleak. UDALA

Erredakzioa URNIETA

Ekimena Adarrazpi, Errekalde, Gurutzeta eta Goiburu baserrietako produktuekin abiarazi da, eta herriko baserritar gehiagori zabalduta dago ekimena. Adarrazpi ardietatik eratorritako produktuak eskaintzen ditu: Esnea, gazta freskoa, mamia, esne gordinarekin egindako gazta eta, noski, arkumea. Gurutzeta eta Errekalde baserriek, berriz, barazkiak: tomatea, letxuga, porrua, azenarioa, tipulinak, kalabazina, zerba eta

kalabaza,... Goibururen eskutik, bestalde, foie, ahateen haragiarekin egindako albondigak, pateta, urdaiazpikoa eta sagar puera.

Whatsapp bidezko eskaintza

Udalak mekanika ezarri du, zeinaren bidez interesatuek eskaintzak Whatsapp bidez jasoko dituzten: "Larunbat eta igandetan aste bakoitzean eskaintzen dituen produktuen zerrenda ipiniko du produktore bakoitzak prezioekin eta euren kontaktua-

rekin batera, eta ondoren, interesa duten herritarrek, produktore bakoitzari komunikatu beharko diote zuzenean zer erosi nahi duten. Epea asteazken bitartekoa izango da. Izan ere, produktuen banaketa eta ordainketa ostegunetan 17:30-18:00 bitartean gauzatuko da, San Juan plazan".

Whatsapp talde horretara batu nahi duten herritarrek 674 175 430 telefonora idatzi edo deitzeko deialdia luzatu du Urnietako Udalak.



Buruntzako gailurrera iristetik gertu izan zen ezbeharra. OIARTZABAL

Zakur baten hozkada Buruntzan

Haginkada ez zen haragiraino iritsi, baina galtza motzak erabat zartatu zizkion zakurrak

Andoni Urbistondo URNIETA

Hilabetearen hasieran gertatutakoa kontatu digu Joseba Oiarzabal urnietarrak. Iluntzeko 19:30ak aldera, Buruntzako gailurra iristetik gertu zela, behe-rantz bi zakur azaldu ziren bat-batean, horietako bat *podenco campanero* arrazako zakurra, eta hozka egin zion eskuin izterrean. Argazkian ikus daitekeenez, haginkada ez zen haragiraino iritsi, baina galtza motzak erabat zartatu zizkion zakurrak. Gertu ziren jabeei kontuak eskatu zizkien mendizaleak, haserre, zakurra lotuta bazihoan ere, mendizaleari koska egin baitzion. Lotuta eramanda ere, zakurrak kontrolatzen ez baditu, jabeak muturrekoarekin eraman behar dituela esan zien Oiarzabalek. Iskanbila betean, bakoitzak bere martxa jarraitu omen zuen. Buruntza aldean jende asko dabil pande-

mia garaian, eta legeak garbi dio jabeak kontrolatu ezin dituen zakurrak lotuta eraman behar dituela mendian. *Podenco campanero* arraza, berez, ez da arraza arriskutsua, baina bistakoa da, jabeak muturrekoarekin eraman beharko lukeela, pertsona bati hozka egin badio. Kaltetua izan den herritarrari salaketa jartzeko aholkua eman dio Udaltzaingoak, eraso egin duen zakurra zein izan den identifikatu, eta arriskutsu gisa etiketatzeko, aurrerantzean jabeek lotuta eta muturrekoarekin eraman dezaten.

PERTSONA BATI HOZKA EGITEN BADIO, JABEAK MUTURREKOA JARRI BEHARKO LIOKE ZAKURRARI

Kartelak herrian

Sanmioletatik hona, Urnietako gazte talde baten eta Udalaren artean ika-mika ematen ari da. Jaien atarian kartela ipini zuten, eta Udalak iraingarria zelako kentzeko agindua eman zuen. Geroztik kartel gehiago agertu dira, eta gazteek adierazpen askatasunaren aldeko idatzia zabaltzen dute. Aiurri.eus gunean irakur daiteke idatzi hori.



Egun hauetan ikusgai egon den karteletako bat. AIURRI

Herritar bakoitzak lau erosketabono eskuratu ahal izango ditu

Saroben eskuratu ahal izango da, alde zaurretik hitzordua hartuta

Erredakzioa URNIETA

Bonoak azaroaren 30era bitarte erabili ahal izango dira, eta Udalak xehetasun berria eman nahi izan du: "Bonoen erabilerrari dagokionez, erosketaren zenbatekoak bonuaren balioaren

berdina edo handiagoa izan beharko du, erosketaren zenbatekoa bonuaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, aldea ez baita itzuliko. Hau da, bonu bakoitza erosketa bakoitzean agortu beharko da".



Andoain herriarentzat erreferentziako ospitala da Asuncion klinika. Bertako egoera salatzeako manifestazioa deitu dute. AIURRI

Manifestazioa deitu dute

Langile batzuk eta herritarren talde batek Asuncion Klinikan gertatzen ari dena salatzeako manifestazioa deitu dute, larunbaterako. 12:30ean irtengo da Plaza Zaharretik. Andoaindarrentzat ere Tolosako erreferentziako ospitalea da

Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko asteburuan alarma guztiak piztu ziren Tolosako ospitalaren inguruan, koronabirusak eragindako kasu positibo ugari agertu baitira. Hogeiziren hasieran, eta kopuru hori biderkatu egin da. Lehendik ere ospitala askoren jopuntuan zegoen, kontzertatutako ospitale pribatua baita. Astearte eguerdian langileen ordezkariak batek eta herritar talde batek agerraldia egin zuten, ospitalaren inguruko egoera salatzeako eta manifestaziorako deialdia egiteko.

Langileen ahotsa

Tolosako agerraldian aspaldiko borrokaren berri eman zuten: "Urteak dira gure lan baldintzengatik borrokan gaudela. Urteak gure lan baldintzak duintzea eskatzen, argi dugulako,

lan baldintza duinen bidez eskainiko ditugula zerbitzu duinak, kalitatezkoak. Langile gutxi gaude, gutxiegi, ez gara iristen. Gure aldetik, dena ematen dugu, baina baliabide pertsonal eta material faltak eragin zuzena du. Eta honek guztiak ekarri du Klinikaren itxiera eta COVID-19 kasuak langileen artean zabaltea. Ez ditugu maskarila egokiak izan orain arte, ezta babes neurriak ere. Ez da kasualitatea, Asuncion Klinikan COVID-19a zabaldu da jasaten ditugun lan baldintza txarren ondorio eta hau argi eta garbi. Klinika honen

jabeen helburua osasun arreta baino, irabazi ekonomikoak direlako da.

Hori guztiagatik, herritarrekin batera gure eskubideak defendatu nahi ditugu, Asuncioneko langile baina baita Tolosaldeko herritar moduan".

Herritar talde bat haserre

"Urteak dira, eskualde honetako osasun arretaren gabeziak salatzen egon garela gutako asko. Ospitala konfinatu dute, bertan ingresatuta daudenak bisitarik gabe, kontsultak bertan behera, ospitalizazio berriak Irunera. Irunera! Ez gaude egoera hau onartzeko prest eta argi dugu, gertatu dena ez dela kasualitatea. Interes ekonomikoak, osasun arretaren gainetik jartzearen ondorio da bizi dugun egoera.

Irtenebidea, osasun arreta publikoa da, %100ean publikoa".

MANIFESTAZIOA ANTOLATU DUTE TOLOSAN, LARUNBAT HONETARAKO

Klinikako zuzendaritzaren oharra

2020/10/10. Aste honen hasieran langileen artean izandako positiboen ondoren, Asuncion Klinikako Zuzendaritzak, prebentzio-neurri gisa, zentroaren jardura murriztea erabaki du zubian zehar, plantillako egoera epidemiologikoaren argazki osoa eta zehatza izan arte. Profesional eta paziente guztiei probak egin zaizkie, eta orain arte egindako testen arabera, 22 kasu positibo atzeman dira langileen artean (zentroak 350 pertsonako plantilla du) eta bi kasu ospitaleratutako pazienteen artean.

Hala, zubi honetan zehar, larrialdiek eta ospitaleratze-solairuek ohiko moduan funtzionatu dute. Prebentzio neurri gisa, ospitaleratzea behar duten pazienteak Bidasoako eskualdeko ospitalera eramango dituzte. Gainera, ospitaleratuta dauden gaixoak birkokatu egin dituzte, gela bakoitzean gaixo bakarra egon dadin. Era berean, kanpoko bisitak debekatzeko neurriari eutsiko zaio.

Era berean, egoeraren kontrola ahalik eta handiena izan dadin, zazpi egunetik behin egingo zaie test sistematikoa Asuncion Klinikako profesional eta paziente guztiei, datozen lau asteetan zehar.

Neurri guztiak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin adostu dira, eta lankidetzaren estuan ari dira lehen kutsatzeak detektatu zirenetik.

Asuncion klinikak datorren astean jardura normalari berriz ekitea espero du, eta neurriak "prebentziozkoak" direla adierazten du, pazienteen eta langileen segurtasuna bermatzeko helburu bakarrekin.

ELA sindikatuaren adierazpena

2020/10/13. Tolosako Asuncion Klinikan azken egun hauetan 40tik gora COVID-19 kasu agertu dira, gehienak lanean kutsatu diren langileak. Tolosaldea eskualdeko erreferentziako ospitala den heinean, milaka herritar zerbitzuak murriztuta aurkitu dira azken egunetan. Horren aurrean, ELAk salatu nahi du ospitaleko zuzendaritza pandemiaren kudeaketa txarra egiten ari dela eta 'rebrote' honen aurrean ez duela aurreikuspen eta ardura nahikoarekin jokatu:

- Pazienteen sektorializazioa ez da ondo egiten: positibo eman dutenak eta negatibo direnak planta berean daude eta berragertze kasu honetan ere ez da aldaketarik egon.
- Langileei dagokionez, lan txanda berean, positibo diren eta ez diren pazienteekin lan egiten dute.
- Langileei martxoan egin zieten lehen odol analisi hartatik ez die oraingo berragertze egoera hau arte PCRrik egin, ezta paziente positiboekin lanean jarduten dutenei ere. Are gehiago, oportunitat buektatu diren langileak ere inongo probarik egin gabe hasi dira lanean.
- Azken egunetan langileei egin dizkieten PCRen kudeaketa ere ez da ona izan, emaitza ematen 24 ordu baino gehiago behar izan dute eta bitartean positiboak ziren langileak lanean egon dira.
- Bisiten eta pazienteen sarrera eta irteeratan ere nahikoa kontrol ez dago, askotan pazienteen bisitetako protokoloak ez baitira betetzen.

ELAk behin baino gehiagotan salatu du Tolosaldeak, Gipuzkoako beste eskualdeek bezala, ospitale publikoa izan behar duela, eta ez irabazi asmoak dituen enpresa pribatu batek kudeatutako osasun zerbitzua. Horrelako kudeaketa batean ez da behin ere zerbitzuaren kalitatea ez eta langileen baldintza eta segurtasuna lehentasun izango.

Beraz, ELAk bat egiten du larunbat honetan Tolosan 'Aski da! Kalitatezko Osasungintza Publikoa' lemapean herritar talde batek deitu duen manifestazioarekin.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



"Berrogei Arigunetik gora lortu ditugu"

AINHOA AIERTZA ANDOAINGO EUSKARALDIA

Kale Nagusian ZASA zeneko merkatalgunean izena emateko aukera zabalduko dute, laster. Urriaren 22an egingo da Andoaingo Euskaraldiaren aurkezpen ekitaldia

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Urriaren 22an aurkezpen ekitaldia egingo dute, iluntzeko 19:00tan hasita Bastero Kultur-gunean.

Euskaraldia Andoainean martxa hartzen ari da. Zer nolako dinamika daramazue aste hauetan?

Bi astez behin elkartzen ari ginen, eta aurkezpen ekitaldira begira burubelarri gabiltza orain. Bestalde, Euskaraldian parte hartzeko aukera zabaldu da eta hori gizarteratzen ari gara. Izena eman beharra dago, baita duela bi urte parte hartu zutenek ere. Lan hau guztia martxan jarri aurretik Ariguneak lortzen aritu gara. Dagoeneko 40 Arigunetik gora ditugu.



Ainhoa Aiertza. AIURRI

Laster herrian bertan izena emateko aukera baliatuko duzue. Zer aurreratu daiteke?

Kale Nagusian Zasa izeneko denda zena Euskaraldiaren gune bilakatuko da. Maila pertsonalean eta elkarte modura izena emateko aukera eskainiko dugu bertatik. Ostegun arratsaldetan eta larunbat goizetan zabalik izango da. Zalantza guztiak bertan argituko ditugu.

Bertatik bertara egiten ez duenak euskaraldia.eus webgunean izena eman dezake.

Basteroko aurkezpen ekitaldia iristear da. Zein osagai izango ditu ospakizunak?

2018ko edizioa gogora ekarriko dugu, bideo baten bidez. Aurtengoari begira, herrikideei bideoak helarazteko eskaera luzatu diegu. Ekitaldiak umore puntua izango du, bakarrikzeta saio bat izango baitugu. Bertsoa, txalaparta eta musikarekin osatuko da ekitaldia.

Ostiral honetan hasita, ekitaldira sartzeko gonbidapena zabalitzen hasiko gara. COVID-19 protokoloak agintzen duenez, 250 lagunentzako tokia izango da. Hurbildu nahi duenak izena eman beharko du.

Parte hartzea sustatzeko bideoak eskatu dituzue. Zer nolako mezuak zabaldu nahiko zenituzkete?

Aurtengo edizioan parte hartuko dutela adieraztea eskatu diegu, eta baita herrikideak animatzeko mezuak zabaltzea ere. Funtsean horrelako bideoak jaso nahiko genituzke.

Pandemia garaian izanik, duela bi urteko arrakastari eustea izango litzateke helburu nagusia?

Halaxe da, pandemiak geldialdia ekarri baitu. Etxealditik Euskaraldia ekimena abian jarri zen, baina ez da gauza bera izan. Etxean gauden bitartean euskarra besteekin praktikatzea zaila delako. Ariguneak lortzeko epea amaitu bada ere, berriak erakartzen jarraituko dugu.

2018ko ekainean eta udan sensibilizazio lan handia egin genuen, eta hori orain ezin izan da egin. Urrian egonik, azarora begira parte hartze handia lortzea ikaragarria litzateke. Zoriturrez, 2018ko datuetara iristea zaila izango da.

Nahi adina ekimen ezingo dira egin, hori bistan da. Baina gure esku dagoen guztia egingo dugu parte hartzea ahalik eta handiena izan dadin.



Aiurri eskuragarri:
Ebeze eteko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da.
Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).

Diseinua: Goienna Komunikazio Taldea

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus

Whatsapp: 619 163 537

Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



ZIURTAGIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.





Jesus Uzkudun, Elena eta Maria Diez Omañas Felipe Diezen alabekin batera, Urnietako San Juan plazan. AIURRI

Amiantoaren biktimak justizia eske

Amiantoak minbizia eragin zuen langile askoren artean, eta Beterri-Buruntzan kasu bat baino gehiago dago. Ostegun honetan Donostian Felipe Diez urnietarraren kasua epaitzen hasiko dira. Urteak eman zituen Hernaniko Orbegozo lantegian lanean

Xabier Lasa URNIETA

2018an hil zen Felipe Diez urnietarraren familiak eta amiantoak kaltetutako Asviamie elkarteak bultzatuta, epaiketa abiaraziko da ostegun honetan. Bere alaba Elena eta Mariak eta Jesus Uzkudun elkarteko kideak Orbegozo lantegian amiantoarekin lan egin zuen Felipe Diezen kasua azaldu dute.

Euskal Herrian milaka dira amianto mineral kantzerigenoarekin lan egin ostean osasuna hondatuta hil diren langileak, Asviamie elkartearen ustetan. Gero eta epaiketa gehiago bultzatzen ari dira azken urtetan, hainbat lantegiek zein administrazioak oker jokatu zutelakoan hamarkadetan. Langileen aldeko epaiak irten

dira epaiketa gehienetan. Hernaniko Orbegozo lantegiko langilea izan zen Felipe Diez Mielgo urnietarra da horietako bat. 2018ko azaroaren 26n hil zen, bronkio eta biriketako minbiziak luzez jasan ostean. Osakidetzan, 2018ko abuztuaren, Felipe Diez oraindik bizi zela, bronkio eta biriketako gaixotasun hilkorra diagnostikatu zioten, eta aurre-

aritu ere, eta bronkio eta biriketako adenocarcinoma edo neoplasia malignaren eraginez hil zela.

Donostian gaur egingo den epaiketan, familiak SIDENOR-COFIVACASari (ACENOREk hartu zuen enpresa) eskatzen dioten 175.876 euroko indemnitazioa aztertuko da. Izan ere, enpresa horrek Segurtasun eta Higienearen inguruko araudia bete ez izanak Felipe Diezi gaixotasuna eta heriotza goiztiarra eragin ziotela uste dute familiak eta elkarteak.

Epaiketa burutzen den bitartean, Asviamie elkarteko kideak atarian pankarta baten atzean bilduko dira, eta Felipe Diezen familiak jarritako demanda babesteaz gain administrazioari konpentsazio-funtsa sortu dezan eskatuko diote. Premiazkotzat jotzen dute funtsa hori, batik bat desagertu diren enpresen kasuetan indemnitazioa hortik joan dadin, eta ordainketa ez dadin Osakidetza, eta azken batean, diru publikoaren bizkar geratu.

Uzkudunen urte luzeetako borrokaldia

Amiantoarekin lan egin ostean hil diren langileen eskubideen alde borrokan urteak daramatza Jesus Uzkudun hernaniarrak. Baikor da epaiketaren atarian. "Orain arte epaitegietara eramandako kasu gehien-gehienak irabazi egin ditugu, arrazoia gure alde daukagulako argi eta garbi. Herrialdeko epaile batek atzera botatzen badu, errekurtsioa jarri eta Euskadiko epaitegira doa. Orain gutxi arte, epaileren batek argudiatu zezakeen amiantoaren biktima erretzailea zela, eta enpresek ere horri heltzen zioten. Baina Espainiako Epaitegi Gorenak doktrina ezarri du, esanez nahiz eta erretzailea izan, kontuan hartu behar dela sustantzia hilkorrekin lan egin izana".

Uzkudun arazoaren larritasunaz ohartarazten saiatzen da ahal duen guztietan. "Problematika hau benetan aztertuko bagenu eta erakundeek kon-

kari pertsonalen atalean, Orbegozon lehenbizi eta Acenorraren ondoren lan egin izana idatzita utzi zuten.

Txosten hori eskuetan, familia Asviamie elkartearekin harremanetan jarri zen, eta demanden bidea irekitzea erabaki zuten. Orduan, Osalanek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) amiantoren fibrak manipulatzear gain irentsi ahal izan zituela lanean aritu zen urteetan. 2019ko uztailan, berriz, Gizarte Segurantzaren Instituto Nazionalak (INSS) Felipe Diezen aldeko ebazpena eman zuen, berea gaixotasun profesionala izan zela adieraziz eta alargun-saria aitortuz.

Ebazpen horrekin argi geratu zen Felipe Diez Aceros y Fundiciones Pedro Orbegozo-ACE-NOR lantegian ingurune toxikoan lanean aritu zela, babes eta prebentzio neurririk gabe

FELIPE DIEZ MIELGO URNIETARRA 2018AN HIL ZEN, BIRIKA ETA BRONKIOTAKO MINBIZIAK JOTA

ORBEGOZO LANTEGIAN INGURUNE TOXIKOAN LAN EGIN ZUEN, BABES NEURRIRIK HARTU GABE

tzientzia hartuko balute, gizarte iraultza piztuko litzateke. Europako erakundeetan aitortzen du lantokietan gertatzen diren heriotzen %53a minbiziak eragindakoak direla. Frantziako kontseilu ekonomiko sozialak ere esana du, European, amiantoagatik bakarrik, urtean 88.000 pertsona hiltzen direla. Izugarrizko eskandalua iruditzen zaigu; tabakoaren kalteak aipatzen dira, baina beste arnastutako sustantzia kantzerigenoen gai hau estalarazi egiten da”.

Atzera begira jarri da Uzkudun, eta bere ustez bete ez diren legeak aipatu ditu: “Espainian, 1947rako jada, aitortua zegoen amiantoak eragindako asbestosiaren gaitza. Arautegi oso bat ezarrita dago. Baina azken urtetan gure alde egin diren sententzia guztiak, arau horiek ez bete izanaren ondorioz etorri dira; tailer txikiek ez ezik CAF, Bizkaiko Laba Garai edo Ontzi-industrietako enpresa handiek ere ez dituzte aplikatu, eta administrazioak berak ez du neurririk ezarri legedi hori beteazteko”.

Epaiketa abiatuko da Donostian, ostegun honetan

Diez Omañas familiak eskatzen duen diru indemnizazioa aztertuko da gaurko epaiketan. “Zorritzarrez, ekonomikoki jotzea da erremedio bakarra erakunde publikoek eta enpresek kontzientzia har dezaten behingoz;

"EZ DA EGOERA ATSEGINA BAINA EGINDAKO KALTEA AITORTU DEZATEN NAHIKO GENUKE"

auto gidariekin isunekin nola, bada halaxe!”, adierazi du Uzkudunek, tinko.

Elena eta Maria ahizpek ere badute zer esana, eskakizun ekonomikoaren inguruan: “badakigu diruaren atzetik gabiltzala pentsatuko duela baten batek. Jakina, dirua beti dator-kio ondo edonori, eta are gehiago alargun bati. Baina guk batez ere aitarekin aitormen morala nahi dugu. Badakigu aitak zenbat sufritu zuen gaitzarekin. Hondatutako birriek ez zioten arnasa hartzen uzten, eta gainera, hezurretako minbiziak sortu zitzaion. Ez dago eskubiderik nola igaro behar izan zituen bere bizitzako azken urteak! Familiari inoiz ez ziguten ohar-tarazi zer nolako lan baldintzetan aritu zen Orbegozon”.

Kasu gehiago Urnietan

Beste familia askok ez bezala, Diez Omañas familiak epaite-gietarako pausoa ematea erabaki zuen. “Ez zaigu batere atsegina egiten endredatzen ibiltzea eta epaitegietara jotzea; ezta ere komunikabideetan azaltzea. Baina egindako kaltea aitortu dezaten nahiko genuke, eta aldi berean, kasu berberean dauden familiak animatu nahi genituzke guk hartutako bide berbera har dezaten. Urnietan, esate batera, Orbegozon nahiz Vegasan osasunarentzat kaltegarriak ziren lan baldintzetan aritu zen jende ugari bizi da...”.

"OSASUNARENTZAT KALTEGARRIA DEN LAN BALDINTZETAN ARITU ZEN JENDEA BIZI DA URNIETAN"

Felipe Diez, Urnietako langile xumea

Felipe Diez Mielgoren biografia, Estatuko herrialde anitzetatik Euskal Herrira 60ko hamarkadan emigratu zuten pertsona askoren antzekoa da.

Zamorako herri txiki batean, Mangeses de la Polvorosan jaio zen, 1940ean. Gaztetan, bertako harrobian zenbait urtetan lan egin zuen. Herrikidea zuen Bernardino Omañas eta biak ezkondu, eta bost seme-alaba eduki zituzten: Isabel, Maria, Felipe, Elena eta Manuel (gaztetan hil zen). Emaztea ere ondo zaildutako emakume da, neskame bezala jardun baitzuen urtetan, 14 urte bete zituenetik.

Bikoteak, lehenbiziko alaba eduki ostean, Euskal Herrira emigratzea erabaki zuen, Zamoran bizimodua ezin zela atera-eta. Urnietan jarri ziren bizitzen. Maria, beren bigarren alaba, Urnietarako etorrera irudikatzen saiatu da, argazki bat deskribatuz: “aita, Isabel alaba txikia beso batean, eta bestearekin egurrezko maleta bati eutsiz. Ama, berriz, haurdun, neu sabelean naramala”.

Etxe batean errentan jarri ziren bizitzen. Ama, ahal izan zuenean, Zumarragan neskame gisa lanean hasi zen, eta bien bitartean, aitak Orbegozon 1968an lanpostua topatu zuen, fundizioaren hobian (amiantoa, silizea eta kirats metalikoak arnasten ziren tokian) aritzeko. Hilabete batzuetan lan horretan aritu ostean, eraikuntzako sektorerara aldatu zen. Urtebete bertan eginda, osteria Orbegozora itzuli zen 1970ean, laminatzaile gisa oraingoan. 80ko hamarkadako industria-birmoldaketa bortitzaren eraginez, orduaroko Orbegozoren jabe zen Acenorreko planta ugari itxi egin zituzten 1992an, eta irekita mantendu zituztenak SIDENOR-COFIVACASAK erosi zituen ondoren. Felipe Diez, prozesu horretan egin zen aurre-jubilazioen planean sartu ahal izan zen.

Urte guzti horietan, produktu hilkorak manipulatu izanagatik gain, istripu larri bat jasan zuen Felipe Diezek; barra pisutsu bat oin batera erori egin zitzaion; tibia eta peronea hautsi zuen, eta zangoa burniez josita geratu zitzaion.



Felipe Diez Mielgo urnietarra. DIEZ OMAÑAS FAMILIA

Elena Diezek adierazi du bere aita, familia aurrera ateratzeko asmoz lan eta lan besterik egin ez zuen gizona izan zela. “Goizean goiz etxetik irten eta gauean itzultzen zen, umeak lotan ginela. Horrexegatik zenbait egunetan amari eskatzen zion gu ohi baino beranduxeago oheratzeko, behintzat une batean ikusi nahi gintuelako. Denak elkarrekin ikustea izaten zen bere ilusioa. Askok maite gintuen”.

Jesus Uzkudun Felipe Diezen lankide izan zen Orbegozon hainbat urtetan, eta ondoko daki zer nolako lan baldintzetan egiten zuten lan Hernaniko enpresa horretan. “Ni baserrian, zerratokian, papertegian... zaildutako gaztea nintzen orduan, eta Orbegozon sartu nintzenean, hango panorama ikusi eta agudo esan nion nire buruari hori ez zela gizaki batek jasan zezakeena. Nolanahi ere, frankismoa zen, eta sindikalismoan murgilduta nenbilenez, militantziagatik bertan geratzea egokitu zitzaidan. Laminazio ataleko mekanikoa nintzen eta Felipe laminazio-trean aritzen zen, oso lanpostu neketsu eta arriskutsuna. Hamasei orduko lan orduak egiten ziren, eta urtean langile bat hiltzen zen istripuz. Lantokiko lurra irakiten egoten zen, eta ordu erdiro ur hotza bota behar izaten zen zolura, izan ere oinaren zolak

erresuminduta edukitzen baikenituen. Eta horri erantsi, zarata jasanezina, sudurretik irensten genuen zikinkeria guztia...”.

Uzkudunek gehitu duenez, giroa hain zen jasangaitza, ezen ordubeteko lana bitan zatitu behar izaten zutela: ordu erdia lanean, eta beste ordu erdia atsedenean. “Baldintza horiek jasateko, langileek alkohola hartu behar izaten zuten, derrigor, gorputzak eskatuta. Behin, lantegiko medikuak esan zidan: “Jesus, lortu behar dugu atsedenetan langileek laminazioan txerriak erre eta jan beharrean entsaladak jan ditzaten; horretara, ardo gutxiago edango dute”.

Orbegozoko langileek oihartzun handiko protestak eta grebak egin izan zituzten 60, 70 eta 80ko hamarkadetan. “Lan-istripuak maiz gertatzen ziren, eta 1979an, egunduko matxina antolatuta ostean, segurtasun eta higieneko batzordea osatzea lortu genuen. Lorpen gehiago ere etorri ziren hurrengo urtetan, baina 80ko hamarkadan industria-birmoldaketa heldu zen, eta hark dena hankaz gora jarri zigun; produkzioak lehentasun osoa hartu zuen berriro, langileen lan baldintzak eta eskubideak bazterrean utzita”.





Luxio Aranburu, 2010eko argazkian. AIURRI

Luxio Aranburu gogoan

Luxio Aranburu Etxeberria astearte eguerdian hil zen. Ibilbide oparoa egin zuen alor ezberdinetan, nagusiki mendizaletasunean eta musikagintzan. Ibilbide oparoa osatu zuen beste hainbat ekimenetan. Asteazkenean eskaini zioten azken agurra

X.Lasa-J.A.Ubeda ANDOAIN

84 urte zituen, eta azken urtetan gaixotasuak jota bizi izan zen. Josefina Poza bere emaztea berriki hil da, 2020ko abuztuaren 30ean zehazki. Bost seme-alaben guraso ziren. Luxio aski ezaguna zen Andoainen, alor ezberdinetan ibilbide oparoa egin zuelako.

1936an Gabirian jaio arren, oso txikitan Andoainera bizitzera etorri zen familiarekin, Kaletxikira hain zuzen. Gizon jantzia zen, eta memoria bikaina izateaz gain aparteko hitz

jariora zeukanez, mintzakide atsegina izaten zen edonorentzat.

Mendizaletasuna zen bere pasioetako bat, eta Euskalduna mendigoizale taldeko kidea izan zen; eta makina bat urtetan bertako zuzendaritza batzordean parte hartu zuen. Taldean, men-

**PIRINIOAK BIZIKI
MAITE ZITUEN.
3.000 METROKO
GAILUR GUZTIAK
IGO ZITUEN**

dizaletasunari buruzko bere jakinduria ezinbestekoa izaten zen txangoak, hitzaldiak eta bestelako ekitaldiak antolatze orduan.

Euskal Herrian ez ezik, Pirinioetan ere apenas egongo den mendi tontorrik berak zapaldu ez zuena. Berak aitortua zen arin-arin ibili zalea eta “tontor biltzailea” zela. 2010ko uztaillean Aiurri aldizkariari eskaini zion elkarrizketan zera adierazi zuen: “Nahiz eta zeharkaldia egitera atera, ezin naiz itzuli etxera bidean topatzen den puntaren bat egin gabe. (...) Ez dugu ahaz-

tu behar gizakiak beti izan due-la grina ahalik eta gailur gehien egitekoa, denbora laburragoan...”.

Bere balentrien artean, azpi-magarrienak agian, Piriniotako 3.000 metroko gailur guztiak igo izana batetik; eta, bestetik, 1980an Mediterraneo eta Kantauri itsasoaren arteko zeharkaldia burutu zuen 22 egunetan. Bidean 2.000 eta 3.000 metroko hainbat gailur igo zituen: Estat, (3.151 m.); Montvalier (2.838 m.), Montarto (2.830 m.), Aneto (3.404 m.), Posets (3.375 m.), Perdido (3.355 m.); Vignemale (3.303 m.); Midi D’ossau (2.885 m.); Hiru Errege Mahaia (2.438 m.)...

Sasoiko zegoen urtetan Aconcagua (6.959 m.), Huascaran (6.768 m.), Kilimanjaro (5.895 m.) eta munduko beste zenbait gailur sonatu egin zituen, baina zortzi milakoren bat egin ez izanaren penetan geratu zen.

Ibilbide luzeko musikaria

Andoaingo Udal musika eskolan ekin zion musikari gisako ibilbideari, Alberto Agirre irakasle zuela; segidan Donostiako Kontserbatorioan aurrera samar arte aritu zen musika ikasketekin. Handik gutxira Udal Musika Bandan klarinete jolea izan zen eta bertan aritu zen 50, 60 eta 70eko hamarkadetan, hura desegin zen arte.

Musikari nekazina izanik, eta Andoaingo musikan pauso bat aurrera eginez, 1985ean Jose Manuel Lopez, Jesus Beristain, Luis Berrondo eta beste zenbait musikari beteranoekin batera, Andoaingo Musika Banda osatzen saiatu zen. Txalaparta txarangako zenbait gazte (Jesus Jimenez, Jexus Mari Jauregi, Eugenio Delgado, Joxerramon Berrondo...) erakarri eta egin zituzten pare bat entsegu Olagainen. Baina hutsean geratu zen saiakera, instrumentu joleen aldetik gutxieneko kopurura ezin iritsi izanagatik.

Udal Musika Eskolaren ekimenez 90eko hamarkadan Musika Banda berrabiarazi zenean, bi aldiz pentsatu gabe murgildu zen abentura hartan, klarinetea eskuetan zuela.

**MEDITERRANEOA
ETA KANTauri
ITSASOA LOTU ZITUEN
22 EGUNEKO
ZEHARAKALDIAN**

Halako batean, urte batzue-tako ibilbideari amaiera eman zion Bandan, eta Gora Kale txiki Txarangarekin bat egin zuen, Joxe Mari Oiartzabal zuzendariarekin batera. Joxe Ramon Berrondo kideak adierazi duenez, “ilusio handiarekin hasi zen txaranga, eta asko irabazi zuen taldeak bere ekarpenarekin. Batik bat azpimarratuko nuke oso hurbileko agertu ohi zela taldeko gazteenekin; bazeukan dohain berezia gazteei musikarekiko maitasuna txertatzetako orduan, eta haiek maisutzat eta erreferentziazat hartzen zuten. Pena handia hartu genuen gaixotasuna zeukala adierazi zigunean; kalejiretan ibiltzea nekagarri egiten zitziola eta txaranga utzi egingo zuela aitortu zigun 2017an omenaldia eskaini genion Kaletxikiko jaietan egin genuen emanaldian, eta biziki emozio-natu zen, bere haurtzaroko auzoan izan baitzen”.

Egiazki, oso kaletxikitarra sentitzen zen, eta 2011ko auzoko jaietan Kandido pertsoaiaren papera bete zuen.

Sagardogintzan aditua

Sagardo lehiaketa askotan parte hartu zuen epaimahaikide bezala. Bereziki, Santa Krutz jaietako eta Kaletxikiko jaietako sagardo lehiaketa ezagunetan.

Auzolanaren aldekoa

Luxio Aranburuk gogoko izaten zituen euskararen, euskal kulturaren edo ondare historikoaren alde herrian sortzen ziren ekimenak, eta ez zen harritzekoa horietan inplikatzeko. Esate batera, Andoainen Mintzalaguna ekimenarekin bat egin zuen lehenbizikoz abian jarri zenean. Burdina taldearen kolaboratzaile fina izan zen informazio iturri gisa; maiz jo izan zuten berarengana, Andoaingo udal-errian edo eta Leitzaran bailarako bazterretan ezkutatzen ziren ondare historikoak inork gutxik bezainbat ezagutzen baitzituen.

Urtetan atzerago joanda ere, gogoan eduki behar da Franco hil osteko urtetan Andoaingo gizartea dinamizatzeko sortu zen Auzolan herri kolektiboko bultzatzaileetako izan zela.

Asteartean bertan Aiurri.eus gunean Aranbururen argazki-bilduma argitaratu zen, bere ibilbidearen ertz guztiak batuz.

Mikel Arberas ANDOAIN

Hainbat arlotan murgilduta egon da, baina azken urteotan idazle lanetan ari da. Jada kioskoetan dago Aizkorri Aratz naturguneari buruzko gida-liburua.

Nolatan idatzi duzu Aizkorri Aratz natur-parkeari buruzko liburua?

Saltsa askotako perejila izan naiz beti, baina azken urteetan mendiari eskaini diot gehien. 2016an zortea eduki nuen mendizaletasunari eta bertako jardueri buruzko graduondokoa burutzean. Liburua idazteko aukera ikasketa horiek egitean iritsi zitzaidan.

Zein helbururekin idatzi zenuen?

Nik askotan esan izan dut, mendiak ematen didana ezin dudala hitzez azaldu. Mendiak gogoko dugunok badakigu zer nolako zirrarara sor dezakeen. Sentitzen nuena idatziz adierazi nahi nien herritarrei eta liburua hartuko zuen edonori.

Jakitun naiz koronabirusaren garai honetan mendizaletasunak goruntz egin duela; hots, igo egin da mendira joateko joera, baina guztiak Hernioko, Txindokiko edo Aizkorriko puntara joaten dira. Gutxi ezagutzen dituzte, esaterako, Aizkorri edo Txindoki inguruko menditxoak. **Liburua idaztearen eta argitaratzearen prozesuan zailtasunak eduki dituzu?**

Nahiko erraza izan da, enkargu bidezko lana izan baita. Graduondoan mendiko kazetaritza izeneko ikasgaia eduki nuen eta Ramon Olasagasti izan zen irakaslea, zeinak, lan batzuk eskatu zizkigun, horietako bat Carlos Soriari buruzkoa. Nire lana gustatu zitzaionez, ikasketak bukatu eta Unai Ugartemendiaren bitartez Ramon Olasagastirekin kontaktuan jarri nintzen berriro. Bapatean esan zidan Sua argitaletxetik liburu bat eskatu ziotela Aizkorri Aratz parke naturalaren inguruan, baina bera lanez gainezko zegoenez ea idazteko prest nengokeen galdetu zidan. Sua argitaletxearekin hitz egin nuen lanak zertan oinarritzen zen jakiteko; ia bi urteko epea jarri zidaten liburua amaitzeko. Baiezkoarekin erantzun nien, aitzakia ematen zidalako mendira gehiagotan joateko edota argazkilaritzan murgiltzeko, izan ere, liburuak argazki guztiak nireak dira.

Mendizaleentzat liburu baliagarria izango da txoko berriak ezagutzeko.

"Mendiak eman didana ezin dut hitzez azaldu"

JON IRAOLA TREKU 'PARQUE NATURAL DE AIZKORRI ARATZ' LIBURUAREN IDAZLEA

Liburuak maila ezberdinetako hainbat ibilbide biltzen ditu. Horrez gain, Euskal Herriko gune bereziak ikuspegi pertsonal batetik erakusten ditu..



Jon Iraola liburuaaren egilea. AIURRI

Pena dut edukia Aizkorri-Aratz ingurura soilik mugatzeagatik. Umetatik ezagutzen dudun gunea da, toki berriak ere ezagutu ditut, baina mugak jarri beharra daude, ezin dira nahi beste leku liburuan agertu. Halaber, Euskal Herrian eta Espainia mailan zabalduko den tirada bat dela jakinda, pozgarria da jendeak liburua irakurri eta Aizkorri mendi bat izateaz gain, kate bat ere badela erakustaraztea. Aukera asko ematen duen ingurumen naturala da.

Liburu honetan denetik aurki daiteke. Hiru kilometroetara iristen ez diren ibilbideak aur-

ki ditzakezu, altuera gutxikoak, baina haurrentzako oso baliagarriak izan daitezkeenak; zera esan nahi dut, haurrek ibilbide luzeak eta zailak egin ditzazkete zailtasun handirik gabe, baina lekuez gozatzea eta ingurua lasaitasunean ezagutzea garrantzitsua iruditzen zait. Horrez gain, ibilbide gogorrak ere badaude, esaterako, bi ibilbide jarraian egitea proposatzen dut, egun osoko iraupena eduki dezakeena.

Kirol jasangarriari buruzko atal bat idatzi duzu, zertan datza?

Liburua erdi amaitua nuenean eskatu zidaten mendi ibilbideez

gain, interesgarria izango zela beste eduki mota bat gehitzea. Gauzak horrela, proposatu nien kirol jasangarriari buruz egitea. Txikitatik eduki dut mendi zailtasuna eta beti erakutsi didate txoko guztiak bere horretan utzi behar direla; nolabait azaltzeko, ez dugu geure arrastoa utzi behar, oharkabean igaro behar gara. Alde batetik, aipatu nahi nuen, Aizkorri-Aratz inguruak kirol eskaintza zabal ahalbidetzen duela; hala nola espeleologia, barrankismoa, orientazioa eta eskalada, beste batzuen artean. Beste alde batetik, Gipuzkoako Mendi Fede-

Naturgune ikusgarriari eskainita

Dozena erdi bat mendilerro hartzen ditu 20.000 hektarea inguruko hedaduran zehar. Lurralde menditsu hau garaiera handira iristen ez bada ere, erliebe malkartsu eta arrokatu bat da, non, paisaia erraldoiak elkar kateatzen diren: Aketegi edo Andarto bezalako tontorrek itzala ematen diete Urbia, Oltza edo Degurixa bezalako erosio karstikoei; pagadi amaigabeek Altzaniako mendilerroa janzen dute, eta haren hegoaldean haitzarteak eta hegala agertzen dira. Aipatu beharra dago ere Marutegi edo Atxorrotx bezalako harkaitz ikusgarriak, Arrikutzeko haitzuloa bezalako lurpeko unibertsoa eta Aitzuloko begiak, Arantzazuko santutegia edo San Adriango tunelaren tankerako leku magikoak.

razioak lan polita egin izan du jasangarritasunaren inguruan, eta mendizaleentzako praktika egokiei buruzkoa dekalogo bat argitaratu zuen.

Etokizunari begira liburuaren bat gehiago idatziko duzu?

Maiatzean liburua entregatu nuenean argitaletxetik aitortu zidaten oso pozik zeudela egin-dako lanarekin, eta gustatuko litzaikeela datorren urterako beste zerbait idaztea. Gaiena bat pentsatzeko esan zidaten, bestela eurak bidaliko zidatela proposamena. Nik pare bat aukera mahaigaineratu nituen: batetik, Euskal Herria autokarabanan edo furgonetan ezagutzeko gida moduko bat; bestetik, umeekin asteburu pasa egiteko lekuak kirola eta abenturak uztartuta.

Oraindik ez dut baiezkorik jaso. Agian, beste gairen bat proposatzeko eskatuko didate. Hala ere, esan bezala, gai orokorrago bat egitea gustatuko litzaidake.



Emakumezkoen txapelketa etxekoentzat izan zen. EUSKALDUNA

Larramendi txapelketa ikusleen aurrean jokatu ahal izan zen

Adiskidantzazko txapelketan emakumezkoak garaile izan ziren. Mutilak hirugarren sailkatu ziren

Erredakzioa ANDOAIN

Emakumezkoen lehen taldeak erakustaldi bikaina eman zuen Intxurreren aurkako partidan, 6-0 irabazita. Maila bikaina erakutsi zuten eta ikusleen artean ilusio printza nabaritu zen, denboraldi berriko partidei begira.

Gizonezkoen taldeak, berriz, 3. postua lortu zuen Mutriku gailenduta. Bina amaitu zenez partida, penaltia jaurti zituzten. Finala Real Union taldeak irabazi zuen Oiartzunen aurka. Euskaldunako partidan bezalaxe bina egin, eta txapelketa penaltietan erabaki zen.



Mutiletan, hirugarren postua lortu zuten. EUSKALDUNA

Zumeatarra berriro martxan

Andoaingo atletismo taldeak ez du dortsala janzteko denborarik galdu. Iraileko azken asteburuan Aitor Muruak Espainiako Distantzia Erdiko txapelketan parte hartu zuen. Bere adin tartean 4. postuan sailkatu zen. Javi Mentak bere aldetik Josetxo Imaz memorialean parte hartu zuen. 14. postuan sailkatu zen, 32:53ko denbora eginez.



JAVIMENTA



Mikel Iturria. EUSKALTEL

Denboraldi amaiera Euskaltel Euskadirentzat

Paris-Tours lasterketan aritu zen Alonso, eta Ordiziako Klasikan Iturria

Erredakzioa URNIETA

Urriaren 11n Mikel Alonsok Paris-Tours lasterketan parte hartu zuen. Lasterketa ezaguna da, 213 kilometrokoa, eta ETBn eta Eurosporten zuzenean ikus-teko aukera izan zen.

Biharamunean Euskaltel-Euskadiko txirrindulariak Ordiziako Klasikoan aritu ziren. Iturria 33. postuan sailkatu zen.

Ez ohiko denboraldia izan da bientzat. Lasterketa gutxitan parte hartzeko aukera izan dute, eta Itzulian eta Vueltan ez ego-tea kolpe handi samarra izan da. Denboraldi berria jomugan dute Iturriak eta Alonsok. Biak ere Euskaltel en zango dira, 2021ean.



KARLIS

Gantzaraini omenaldia Ordizian

Gurutz Gantzarain andoaindarra eta Bixente Aranburu ormaiztegiarra Ordiziako Klasika lasterketaren amaieran omendu zituzten, urriaren 12an antolatu zuten profesional mailako lasterketan. Klasika eta aitortza-ekitaldia Chapel-Gorri elkarteak antolatu zituen. Ordiziako Klasika aitzindaria da Estatu mailan egiten diren egun bateko proben artean. 1938an jarri zen abian, eta geroztik 97 edizio egin dira, segidan denak. Gurutz Gantzarainek 1945 eta 1946ko edizioetan txapela jantzi zuen; 1952an, berriz, bigarren geratu zen. Aranburuk, 1949an irabazi zuen proba. Irabazleen zerrendan, besteak beste, honako ziklistak ageri dira: Antonio Mendiburu, Anton Barrutia, Txomin Perurena, Migel Mari Lasa, Marino Lejarreta, Abraham Olano, Neil Stephens, Laurent Jalabert, Mikel Zarrabeitia, Alejandro Valverde, Felix Cardenas, Gorka Izagirre edo Simon Yates. Argazkian, ezker eskuin, Gantzarain eta Aranburu ziklista ohiak Simon Carr (Delko) aurtengo irabazlearekin batera.



Urnietako
udala

Xabier Lasa ANDOAIN

Bost musikarik osatzen dute Oreka TX taldea: Harkaitz Martinez de San Vicente eta Mikel Ugarte (zurezko, harrizko eta banbuzko txalapartak eta bidoia), Mixel Ducau (alboka, zurezko klarineta, saxoa eta sopranoa), Juanjo Otxandorena (bouzoukia), eta, Iñigo Egia (perkusioa).

Taldeak 2019an *Koklea* izenburuko diskoa aurkeztu zuen, eta zuzenekoak han hemen eskaintzen hasita zegoela heldu zen osasun krisia: “Diskoa aurkezterakoan, hor non kontzertu guztiak bertan behera geratu zitzaizkigun. Denborarekin, zorionez, horietako zenbait berriro programatu dituzte. Andoaingoa tarteko. Japonia, Iruñea, Zaldibar... zenbait bazterrean geratu dira, nolnahi ere”.

Txarrean-txarrean, Oreka TX taldeak suerte pittin bat daukala aitortu du Egiak: “gure talde-formatua ez da milaka musikazale erakartzen dituen horietakoa, eta programatzaileak errazago animatzen ari dira gurekin”.

Etsipenez ikusten du musikagintzaren sektorea Egiak: “Lur jota gaude musikariak ez ezik, baita arloko gainerako profesionalak. Ezjakintasunera ohituta bizi izan gara azken urtetan, baina orain sufritzen ari garena are kaltegarriagoa egiten ari zaigu. Konfinamendua bezalako muturreko egoeran, ia-ia liburu, serie edo musikari esker biziraun izan dugu; ikusi da kulturaren ekoizpena zeinen garrantzitsua den gizakiontzat, baina gero laguntza ofizialen txanda heltzen denean, sektorerik ahaztuenetakoa izaten segitzen du. Aspal-ditxotik ikusia dago kultura ez dela lehentasunezko hartzen; esate baterako, batzuei iruditzen zaie disko bat sortzea doako lana dela, ez duela ahalegin intelektualik eskatzen, eta ez dagoela zertan ordaindu beharrik”.

Koklea, azken diskoa

Hamalau piezek osatzen dute Oreka TX-aren azken diskoak, eta horietan hainbat artistek kolaboratu dute. Batetik, munduko bazter askotako hizkuntzen sonoritatea topatu nahi izan dute, honako ahotsekin: Thierry Biscary (Kalakan), Aziza Brahim (Sahara), Monica de Nut (Galizia), San Salvador taldea (Okzitanian) eta Emi Toko (Japonia). Eta bestetik, Xabier Zeberio



Koklea disko berriena taularatuko du boskoteak, ostiral honetan. OREKATX

"Saio indartsua eskainiko dugu"

Oreka TX taldeak *Koklea* disko berriena aurkeztuko du Basteron, ostiral honetan. Taldeko kide den Iñigo Egia andoaindarrak aitortu du zirrara berezia eragiten diola Basteroko oholtzara igotzeak, eta ikuskizun indartsua eskainiko dutela ziurtatu du

(biolina eta harpa) eta Karlos Subijana (txirula) bertako bi musikarien soinuez baliatu dira diskoa aberasteko. Basteroko eszenategian boskotea ariko da: “20 urtetako ibilbidea egin eta gero, iruditzen zait une honetan heldutasun puntu batera iritsi dela taldea, unerik gozoena bizi duela, eta kapaz dela zuzeneko oso indartsua eskaintzeko ordu eta erdian”.

Txalapartaren magia

Oreka TX-ek betidanik egin du apustu esperimentazioaren eta bide berriak urratzearen alde, eta horrela, kultura eta kirol-tako hainbat diziplinekin (dantzariak, musika bandak, abesbatzak, herri kirolariak...) elkarlanean ikuskizun zeharo desberdinak sortu izan ditu.

Txalaparta izan du oinarri Oreka Tx proiektuak, hasieta-



Iñigo Egia Oreka TX taldeko partaidea da. Eskuetan, *Koklea* diskoa. AIURRI

Baliabide anitzeko musikaria

- Perkusio jolea da, eta makina bat instrumentu jo ditu azken diskoan: Indiako tabla, panderoa, kajoia, hanga, udua, cymbalak, kaxixiak, derbuka, kalabazak eta danborra.
- Hainbat musika taldeekin aritu da: Oskorriekin azken hamabost urtetan; musika latinoak euskaraz egiten duen Tic Tara talde kidea da. Alos Quartet kamara laukotearekin aritu izan da; kale ikuskizunean, suan eta erritmoan oinarritzen den Deabru Beltzak taldearekin ere aritu zen...
- Soinu teknikaria da. Oh Brother Hernaniko musika estudioa kudeatzen du. Nahasketak eta masterizazio lanak egiten ditu.

tik. “Euskal Herrian ez ezik hemendik kanpo ere, harrigarria egiten zaio jende askori txalapartarena; batik bat, bi pertsonen erritmo partekatuan jotzen duten instrumentu bakarra izango delako munduan, ziurrenik. Txalaparta ez baita instrumentu bat bere horretan, bi pertsonen inprobisatzen duten ekintza baizik”.

Nolanahi ere, etengabeko esperimentazio prozesu horretan, eta soinu berrien bila ibiltzeko grina horretan, perkusioaren arloak zein soinu berezi-bereziek ere bere garrantzia hartzen dute Oreka TX-ak eskaintzen duen ikuskizunean. Hala dio Egiak, ezpainetan irribarrea marraztuz: “Leku askotara kontzertuak eskaintzera joan, eta bertako burdindegia bisitatzea izaten dugu gogoko; material arraroen bila aritzen gara, tramankulu edo katxarro berriak sortzeko. Gure entsegu lokala ikusi besterik ez dago nola dagoen egur edo burdinazko trastez beterik.

Niri dagokidanez, munduko bazter askotako instrumentuak jotzen ditut, eta pentsatu nahi nuke nire ekarpena egiten diodala taldeari”.



Urnietako AEK euskaltegia. AIURRI

Eskaintza zabala euskaltegian

Maila guztietako ikastaroak Urnietako AEK-n. Diru-laguntzak %100ekoak izatera irits daitezke

Erredakzioa URNIETA

2020-2021 ikasturtean ere euskara ikasteko eskaintza zabala aurki dezakegu Urnietako AEK euskaltegian.

A0 mailako klaseak astearte, asteazken eta ostegunetan ematen dira, 19:30etik 21:30era. A2koak astelehen, astearte eta asteazkenetan, 18:30etik 20:30era, eta B1 eta B2 mailakoak goizez zein arratsaldean egiteko aukera dago. Goizetan, B1 eta B2 mailako klaseak astearte eta ostegunetan dira, 9:30etik 11:30era. Arratsaldean, berriaz, B1eko eskaintza astearte eta asteazkenetarako da, 17:00etatik 19:00etara.

Ikastaroak euskara ikasi edo hobetu nahi duten pertsonen eskaintza daude, eta baita titulua edo ziurtagiria eskuratu nahi dutenei ere. Udaren diru-laguntza matrikularen %100erainokoa izatera irits daiteke.

Jubilatuentzako ikastaro bat ere martxan dago, astelehenetan, 15:00etik 19:00etara.

Euskaltegiko gela guztiak egungo osasun egoerara egokitu daude, beharrezko neurri eta produktuek horniturik.

Informazio gehiago:

Telefona: 662 338 747.

Helbidea: Errekalde kalea, 1.

Antonio Garmendia Xesterua gogoan, Saroben hitzaldia

Luis Mari Zalduak eskainiko du, Ondarearen jardunaldien baitan. Saroben izango da, 19:00tan hasita

Erredakzioa URNIETA

Juan Joxe Garmendia Gorriti saskigilea eta Berastegiko Estefania Zestauren semea, saskigile familiaren jarraitzailea izan zen Antonio Garmendia. Urnietan XX. mende hasieran 17 famili saskigile ziren, Antonio berak ere, zortzi ezagutu omen zituen. 80 urteak ondo beteta, Lekaion gaztetxoei saskigintza erakusten jardun zen urte batzuetan. 2009ko otsailean hiltzean, berarekin amaitu zen langintza. Zalduak gogoan hartuko du, ostegun honetan.



Antonio Garmendia. AIURRI

HITZORDUAK

UDAN ZEHAR EKITALDIAK AIURRI.ESU GUNEAN ZABALDUKO DIRA. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 15

URNIETA Hitzaldia

Antonio Garmendia saskigilea ardatz hartuta, hitzaldia eskainiko du Luis Mari Zalduak. Ondarearen jardunaldien baitako ekitaldia da. **19:00 Sarobe.**

ANDOAIN Argazki-erakusketa

Ondarreta ikastetxeak 50 urte bete ditu eta efemerideari lotutako erakusketa ikusgai dago. Azken eguna urriaren 31. **Bastero Kulturunea.**

ANDOAIN Argazki-erakusketa

Igor Balerdik Afrika aldean egindako argazki-bilduma. **Txindoki taberna.**

ANDOAIN Argazki lehiaketa

Udal egutegia osatzeko lehiaketa martxan jarri dute. Aurtengo gaia koloreak dira. **Informazioa: Andoain.eus.**

URNIETA Kanpaina

"Erosi Urnietan" bonoen erosketa kanpaina indarrean dago. 20 euroko ordainketarekin, 30 euro gastatu ahal izango dira herriko saltoki askotan. **Informazioa: Urnieta.eus.**

ANDOAIN Kanpaina

"Han edo hemen, erosi Andoainen" bonoen erosketa kanpaina. 35 euroko ordainketarekin, 50 euro gastatu ahal izango dira. **Txartelak: Salkin. 10:00-12:00.**

OSTIRALA 16

ANDOAIN Kontzertua

Oreka TX taldearen kontzertua. "Koklea" disko berria aurkeztuko dute. **21:30 Bastero. 12 euro.**

URNIETA Ipuin kontaketa

Marisa Taberneroren eskutik. **17:30 Lekaio.**

LARUNBATA 17

URNIETA Kontzertua

Kyxo eta Gartxot taldeen eskutik. **19:00 Bastero.**



Maya Amrane. DEMODE

ANDOAIN Feminismoa eta islama, hitzaldia

Gizarte aniztasunaren kudeaketan, arrazakeriaren eta bazterkeriaren aurkako borrokan aditua da Maya Amrane. Informazio Zientzian lizentziatua Argeleko unibertsitatean, kooperazio ikasketak egin ditu EHUen.

Urriak 16, ostirala. 18:30, Bastero Kulturunea. Gaztelaniaz.

IGANDEA 18

URNIETA Antzerkia

Aioko haur antzerki emanaldia, Zurrunka konpainiaren eskutik. **18:00 Sarobe.**

OSTEGUNA 22

ANDOAIN Euskaraldia

Andoaingo Euskaraldiaren aurkezpen ekitaldia. "Gehiago, gehiagotan, gehiagorekin" lemapean burutuko da aurtengo edizioa. **19:00 Bastero Kulturunea.**

OSTIRALA 23

HERNANI Jardunaldiak

Andoaingo, Urnietako eta eskualdeko Berdintasun sailek antolatuta, "Zaintza lanen demokratizaziorantz" jardunaldiak. "Zaintzak erdigunera" hitzaldia eta eskualdeko zaintza erregimenaren diagnostikoaren aurkezpena. Izen-ematea: 943 590 902. **Milagrosa, Hernani.**

URNIETA Ipuin kontaketa

Ixaber Agirresaroberen eskutik. **17:30 Lekaio.**

ANDOAIN Antzerkia

"Ave osos" antzezlan, gaztelanian. El mono habitado konpainiaren eskutik. Komedio. **20:30 Bastero. 12 euro.**

LARUNBATA 24

HERNANI Jardunaldiak

Andoaingo, Urnietako eta eskualdeko Berdintasun sailek antolatuta, "Zaintza lanen demokratizaziorantz" jardunaldiak. Mahai-ingurua eta herri eztabaida. Izen-ematea: 943 590 902. **Biteri, Hernani.**

URNIETA Antzerkia eta bertsoa

"Erradikalak ginen". **19:00 Sarobe.**

IGANDEA 25

ANDOAIN Haur antzerkia

"Hansel eta gretel", Borobil konpainiaren eskutik. Ipuin klasikoak modu dibertigarrian. **17:00 Bastero. 4 euro.**

URNIETA Kontzertua

Puro Relajo taldearen zuzeneko emanaldia. **18:00 Egape. 5 euro.**



Eusko Jaurlaritzak joan zen astean egin zuen kanpainaren aurkezpena. IREKIA

Gripearen txertaketa-kanpaina abian jarri dute

Arrisku handiko taldeei Osakidetzak berak emango die txertatzeko hitzordua

Erredakzioa ANDOAIN

"Aurten, inoiz baino gehiago, gripetik alendu!" izenburupean, urriaren 13an abiatu zen txertaketa-kanpaina. COVID19-aren ondorioz, segurtasun-neurri zorrotzagoak hartu dituzte. Osakidetzak berak emango dizkie hitzorduak arrisku handiko herritarrei. Gizarte talde hauei, zehazki: 65 urtetik gorakoak, gaixotasun kronikoren bat dutenak eta haurdun dauden emakumeak. Kanpainaren helburua arrisku-talde horietako pertsonen osasuna babestea da, bai eta osasun kolektiboa ere.

Kanpaina bakarra, hiru fasetan

- Lehen fasean, egoitzetako pertsoneri eta pertsonal sanitarioari eman zaie txertoa.
- Bigarren fasean, Osakidetzak emandako hitzorduen bidez, arrisku-taldeetako pertsoneri.
- Hirugarren fasea, urriaren 31tik aurrera, gainerako herritarrek hitzordua eskatu ahaliko dute.

Txertoa jartzeko guneak

- Andoain: Arrate frontoia. Harremanetarako: 943 00 66 70.
- Urnieta: Osasun Etxea. Harremanetarako: 943 00 66 80.



ZURRUNKIA

“Aioko” familia ikuskizuna

Enaut Gorbea eta Nerea Ariznabarreta Azkartxin eta Moteltxin paperean sartuko dira: "Bidaia fantastikoa izango da, non abenturak, emozioak, sorpresak, Genioak eta argiz beteriko itzalak aurkituko ditugun". Arratsaldeko 18:00tan hasiko da haur antzerki emanaldia. Sarreraren prezioa 3 eurokoa da.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

HAURRENTZAT

"Koko dragoi txikia"

Lar., 17. 17:00.

Igandea, 18. 17:00.

HELDUENTZAT

"Rifkins festival"

Larunbata, 17. 19:30, 22:15.

Igandea, 18. 19:30.

Astelehena, 19. 19:30, 22:15.

Ikuslearen eguna.



SINOPSISIA



Rifkin's festival

Zuzendaria: Woody Allen. **Gidoia:** Woody Allen. **Aktoreak:** Wallace Shawn, Gina Gershon, Elena Anaya, Louis Garrel, Christoph Waltz, Sergi López, Richard Kind, Nathalie Poza,... **Herrialdea:** AEB-Espainia-Italia (2020). **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 92 min.

Woody Allenen filma Donostian

Donostiako Zinemaldian aurkeztu eta gero, pantaila guztietara iritsi da Gipuzkoan barrena egindako filma. AEBko senar-emazte baten abenturak dira, zinema jaialdian gertatzen

direnak. Hiriburuaz txoratuta geratzen dira biak. Emazteak Frantziako zinema zuzendari batekin affaire modukoa du, eta senarra mediku batekin maitemintzen da.


ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Zorionak Jon eta Oier

Ondo ospatu zuen 25 eta 18 urteak, zenbaki potoloak dira eta. Jarraitu zuen bidea jorratzen eta alaitasunez betetzen. Infinito maite zaituztegu. Muxu super potoloak bientzat familiaren partez.



ANDOAIN

Ander

Urriaren 12an Anderrek 13 urte bete zituen. 13 muxu handi etxekoan partez! ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Aiurri bidez.

- Webgunea: www.aiurri.eus.
- Emaila: diseinua@aiurri.eus.
- Whatsapp: 619 163 537.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 17, igandea 18

ZATARAIN: Elizondo, 6.

943 590 802. Andoain.

URNIETA

Larunbata 17, igandea 18

ETXEBARRIA: Andre kalea, 48.

943 551 793. Hernani.



KYXO

Kyxo taldea herrikideen aurrean

Urrietako Udalak eta gizarte eragile ezberdinek kultur egitarau oparoa antolatu dute, udazken honetarako. Poxta Zahar gazte taldearen eskutik, asteburu honetan Kyxo eta Gartxot taldeak zuzenean arituko dira Sarobe antzokian. Javi, Eneko, Manza, Jon Mikel eta Endika dira Kyxo taldeko kideak. Larunbatean izango da kontzertua, iluntzeko 19:00tan hasita.



AIURRI

Erakusketa

Ondarreta ikastetxearen historia irudi bidez azaldu nahi izan dute. Aurtengoa urteurren borobila baita: 50 urte bete ditu ikastetxeak. Basteron ikusgai dago erakusketa.

Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan

An abstract graphic featuring a large teal circle on the left and a large pink circle on the right, both filled with a dense pattern of small, multi-colored dots (red, orange, yellow, green, blue, purple, pink). The dots also appear to be scattered in the background around these circles.

EUSKARALDIA ANDOAINEN

Aurkezpen ekitaldia

Urriak 22, osteguna

19:00 Bastero Kulturgunea

Izena emateko epea: Urriak 20
andoain@euskaraldia.eus

